

*kultura*

*erramu*

*larru*

*estatu*

*teknika*

*kimika*

*testu*

*dekretu*

*seu*

*antidot*

# MAILEGUZKO

HITZ BERRIEI BURUZ  
EUSKALTZAINDIAREN  
ERABAKIAK

1986



**EUSKALTZAINDIA**

THE  
MOUNTAIN  
VIEW  
SCHOOL DISTRICT  
1914-1915





MAILEGUZKO  
HITZ BERRIEI  
BURUZ  
EUSKALTZAINDIAREN  
ERABAKIAK

Euskaltzaindia

1986

© Euskaltzaindia  
Arbieto, 3 - 48008 Bilbo

Azala: Jantxu Lejarraga

Fotokonposaketa: IPAR, S.C.L.  
Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo

Amado Moldiztegia  
Alda. Mazarredo, 35 - 48009 Bilbo

I.S.B.N.: 84-85.479-35-1  
L. G.: BI. 81-1986

## AURKIBIDEA

A.	Ohar adigarriak sarrera- gisa .....	7
B.	Uztaritzeko adierazpena .....	17
D.	Mailegu berriei buruz euskaltzaindiak ematen dituen arauak	21
I.	Hitz-hasierak .....	23
II.	Hitz-bukaerak .....	27
III.	G- edo [j] —latinez bederen— bere baitan dutenak ...	35
IV.	X bere baitan dutenak .....	39
V.	Txistukaria + l, n, r; bi sudurkari elkarren ondoan....	43
VI.	Bi kontsonante oklusibo edota baten ondoren sudur- karia edo [j] —latinez bederen— dutenak .....	47
VII.	Hiru kontsonantezko multzoak.....	51
VIII.	Bi txistukari elkarren ondoan eta txistukaria + oklusiboa.	55
E.	Bibliografi-eraskina.....	59
F.	Laburpenak (gaztelaniaz eta frantsesez).....	63
a.	Resumen .....	65
b.	Résumé .....	69





---

# A

---

## OHAR ADIGARRIAK SARRERA-GISA

*1. Nekez uka dezake inork euskara gaur bere hitz-ondarearen aberastu eta zabaldu beharrean dela. Joan mendeetan oso beranduraino idatzizko zereginetan ez da erabilia izan, eta gero ere, zerbait landu denean, literatura hori esparru eta maila jakin bazueta biltu da baitipat.*

*Gaur, berriz, eta ia supituki, ustegabeko ahalbide eta aukerak eskaini zaizkio, bai irakaskuntzan eta bai administrazioan ere sarrera duelarik. Horiek hola, XX. mendeko gizarte hiritarrak behar duen bezalako tresna bilakatu beharra du.*

*Euskararen iragana izan dena izan delarik, ez da bat ere harriztekoa behar den besteko prestaerarik gabe mende berriak harrapatu baldin badu. Eta eskastasun hori, besteak beste direla, hiztegi-sailean gertatzen zaio batez ere.*

*Hitzen eskasia erremediatzeko, ordea, bide bat baino gehiago du euskarak, hots: 1) Hitzok kanpotik etxeratu (Mailegu-bidea); 2) Elkarketaren, eta 3) Eratorketaren bidez hitz berriak sortu.*

*Denak behar ditu, noski, baliatu euskarak; baina Euskaltzaindia oraingo Agiri honetan lehen bideari buruz baka-  
rrik ari da. Nahi du, alegia, oinarrizko erizpideak finkatu eta arau  
gidari batzuk eskaini, hartzen diren hitzak zein itxura eta idazke-  
ratan hartu behar diren adierazteko.*

*2. Euskaltzaindiak orain argitaratzen dituen arau hauek  
hiru urtetako lanen fruitu edo emaitza dira. Bitartean txosten, az-  
terketa-lan eta elkar hizketa ugari egin da. Aipatzekoak dira ba-  
tez ere 1983. urtean Uztaritzeko Landagoienen berariaz auzi ho-  
netaz egin ziren bi Jardunaldiak, Euskaltzaindiko ez zirenak ere  
bertara deituz. Han aztertu ziren auzi honen inguruan dauden abu-  
ru, joera, oztopo eta oztopoen askabideak. Ikus Euskera (1983),  
527; (1984), 393.*

*Jardunaldiok bukatu eta, Euskaltzaindiari iruditu zi-  
tzaion gaia aski heldua zela zenbait puntu Batzarreari proposatze-  
ko, eta honek hala behar zela uste baldin bazuen, erabakitze-  
ko.*

*Eta halaxe egin da.*

*Aukeratutako Puntu bakoitza batzordeño batek aztertu  
eta hartaz proposamena Batzarrera ekarri du. Batzarrean berriro  
aztertu, eztabaidatu eta behar ziren zuzenketak eginez Euskal-  
tzaindiak erabakia hartu du.*

*Euskaltzaindiak ez du uste zein hitz mailegatu behar den  
erabakitzea berari dagokionik, oraingoz behintzat.*

*Erizpideak arlo honetan finkatu: hori da berak hartu  
nahi duen erantzukizuna. Beste hitzez esanik: mailegatuko diren  
hitzen itxura eta idazkerari buruz arau gidari batzuk eskaini.*

3. *Eta maileguez ari garenez gero, zer den mailegua, edo hitz honekin zer esan nahi den, behar dugu garbi utzi. Izan ere, hirutariko maileguak bereiz daitezke:*

1) *Euskarak aspaldidanik etxera ditu kanpoko hitzak, hots, beste hizkuntzetatik hartuak. Noizbait mailegatuak dira, eta euskarak gaur bereganatuak eta egokituak ditu. Horiek, egia esan, noizbait maileguak ziren, baina ez dira gehiago maileguak, euskal hitz arruntak baizik.*

2) *Badira beste hitz batzuk hizkuntzan lur hartu ez dutenak, nahiz eta hizlari eta idazleek noizbehinka erabili. Hitz hauek beren arrotz-itxura kopetan nabarmenkiro agertzen dute. Horiek ere, zehazki mintzatuz, ez dira maileguak, zeren euskarak, orain arte behintzat, ez baititu bereganatu.*

3) *Bien bitartean kokatzen dira guk hemen mailegu berriak deitzen ditugunak. Ez daude hizkuntzak aspaldidanik mailegatu zituenen artean, baina gaurko premiei erantzuteko hartu beharko lirakeenak dira. Bigarren motatakoen artean ere ez daude, zeren hauek moda igarokor bati men eginez edo esnobismo hutsez soilki erabiltzen baitira. Hirugarren motatakoek, berriz, gaurko beharrei erantzuteko premiazko dirudite, eta askotan, gertatzez, bai mintzoz eta bai idazkiz ere, arruntki erabili ohi dira; baina oraindik gure hiztegian ez dira sartu, ate zabaletik ez behintzat, eta zalantzarik asko nabari da beroien itxuraz, idazkeraz etab. Hirugarren sail honetakoak dira, bada, guk hemen mailegu berriak deitzen ditugunak, eta beroien erabilpena nolazpait arautu nahirik ematen dira presenteko arauak.*

4. *Ezaguna da Altube-tar Seber jaunak egin zuen bereizketa. Bereizketa horren arabera, gauza bat da erdal hitza, eta beste bat erdaratiko hitza. Hitz bat izan daiteke, etorkiari begira-*

*tuz, erdaratikoa, baina euskarari sustraitua eta lur hartua baldin badago, euskal hitza da, besteak bezalaxe.*

*Horregatik, Euskaltzaindiak 1959. urtean Agiri bat eman zuen lehen motatako hitzok —hots, mailegu zaharrak— euskal hitzak direla, eta, beraz, ez direla baztertu behar esanez. Ikus Euskera (1959), 216-217.*

*Baina hau ere gaineratu behar da, hots, mugak mailegu zahar eta berrien artean ez direla beti garbi egoten, eta, beraz, dudazko kasuak gerta daitezkeela.*

5. *Izan zen guztiok gogoan dugun garai bat —mende honen hastapenean—. Orduan kanpotar etorkia zuten hitzak oro, nahiz eta hizkuntzan sendo erroztatuak egon, erauzi behar ziren, euskara garbiaren izenean. Hori gehiegikeria zen, inolaz ere, eta horregatik eman zuen Euskaltzaindiak 1959ko Agiri hura.*

*Gaur, berriz, badirudi beste aldera bihurtu direla batzuen joerak. Bat ere begiramenik gabe esku beteka noiznahi eta nolana-hi hartzen dituzte hitzak, eta ia beti zuzen-zuzenean hizkuntza jakin batetik, hots, gaztelaniatik. Baina hori euskararen nortasuna bera arriskutan jartzea da.*

*Euskaltzaindiak behiala, aspaldidanik etxekotuak zeuden hitzen alde aurpegia atera baldin bazuen, arrazoi berberaz gaitzesten du gaur inoiz beste ertzetik egiten den gehiegikeria ere.*

*Mitxelenak esan duenez, «Inor gutxik ukatuko luke gau-rrerun euskaldunen artean nabari den erdaratikako hitzen premia gorria» (Euskera [1983], 103). Ez da premia bakarrik, presa ere bada, noski, supituki zabaldu zaizkion aukera eta ahalbide barri horientatik. Baina, jakina, horrek ez du esan nahi edozer eta edo-*

*zelan hartzea zilegi denik. Eta hizkuntza batek beti ere bere nortasuna zaindu eta begiratu behar du.*

*Euskarak, guztiok dakigunez, bi kultur hizkuntza bote-  
retsu ditu mugakide; ez mugakide bakarrik, etxe-barneko bizi-la-  
gun ere bai. Horien soziologi eragina jasatea, ez da, beraz, harri-  
tzekoa; baina, hain zuzen, horrexegatik, arazo honetan nola joka  
ere behar da jakin. Gainera, Iparraldeko euskaldunek frantsesetik  
eta Hegoaldekoek gaztelaniatik hartzen baditugu hitzok, berriz  
ere eta gero eta bitaratuago gertatuko gara.*

*Mailegu berriak gehienetan kultur hitzak direnez gero,  
eta hitz horiek latinean eta grekoan iturburua dutela jakinik, badi-  
rudi gomendatzekoa dela zuzenean iturrira jo eta hitzoren eredia  
handik artez hartzea, gero geure bide berezirako egin behar diren  
egokiera eta antolaketak egingo baditugu ere.*

*Aldameneko bi hizkuntza horien eragina hor dago, or-  
dea, eta behin baino gehiagotan garaile aterako da, guk nahi ez  
nahi; baina euskararen nortasuna begiratu nahi bada, ez dugu  
amore eman behar, ezin bestean baizik.*

*Esan dugun bezala, mailegu berriak gehienetan kultur  
saileko hitzak izan ohi dira; horregatik, eta euskararen batasuna  
eta nortasuna zaintzeagatik, guk ere, hitzok hartzean, zuzenean  
abiapuntutik hartzen ahalegindu behar gara, hots, latinetik, gure  
bideak eskatzen dituen moldaerak eginez. Bestela, eta arestian  
esandakoa errepikatuz, frantsesa edo gaztelania hartzen badugu  
iturri eta eredu, berriro zatikatuak ibiliko gara eta hizkuntza ho-  
rien morroi.*

*Grekoa ere kultur hitzen iturburu nagusi da, noski; baina  
salbuespenen bat gora behera, hizkuntza horretako hitzak latinen*

*bitartez hartuko ditugu guk ere, Mendebaleko kultur hizkuntza guztiek egiten duten bezalaxe.*

6. *Gainerakoan, Mendebaleko kultur hizkuntzei so egiten badiegu, gauza batez ohartuko gara: hitzok mailegatzean ez dutela berek ere bide bat bera beti hartu. Frantses, ingeles eta alemanak zehazki atxikitzen dute hitz hauek latinez duten ortografia (nahiz eta inoiz xehetasun batzuetan beren artean ere bat ez etorri); beraz, hizkuntza hauetan lehentasuna ematen zaio begitik sartzen den hitzen itxurari. Italiarak, aldiz, bere fonetik legeetara egokitzen ditu hitzok. Gaztelania, azkenik, bide erdian gelditzen da: alde bere fonetik legeetara egokitzen ditu, eta alde hitzon jatorrizko itxura ere errespetatzen du, neurri batean behintzat.*

*Zein bide hartu behar du euskarak? Aipatu diren hiru joera horiek gure artean ere ezagun dira. Hain zuzen, horretarako batez ere egin izan ziren Landagoienen Jardunaldiak, hots, eritziak jaso eta elkar hizketa egiteko. Han ikusi zenez, etimologiari osoki eta xoilki lotzen zaion bideak badu gure artean jarraitzaile-rik, baina neurri oso laburrean. Gehienak hitzen begi-kolpeari edota euskararen fonetik legeei makurtzearen alde azaldu ziren. Badi-rudi, bada, euskarak ere auzi honetan halako oreka bat bilatu behar duela. Eta hori bilatu nahirik, erreferentzi puntu asko hartu dira kontutan: usadioa (gurea eta besterena), begi kolpea, etimologia, fonetik legeak etab.*

7. *Zenbait puntu Euskaltzaindiak ez ditu berriro ikusi edo erabaki, lehendanik finkatutzat eta epaitutzat dauzkalako: adibidez, «V»dun hitzak «B»rekin idaztea; «B» eta «P»ren aurrean «N», eta ez «M» jartzea; bi kontsonante berdinen multzoa sinpletzea; «C», «CH», «QU», «W» letrak ezabatzea (zenbait izen propio, sigla eta arrotz itxuran eman nahi diren hitzak salbu).*

*Kultur hitzetan ageri den «H» letraren arazoa ez da Bazarrean ikusi; Jardunaldietan, ordea, bai. Han esandakoaren araber, badirudi hitz hasierakoa eta bokalen artekoa gorde behar dela; kontsonante ondokoa ez, salbuespenen bat gora-behera. Mailegu zaharrak direnean, berriz, «H» gabe euskaran sustraitu badira, hala segituko dute.*

8. *Euskaltzaindiaren Arau hauek erizpide nagusi batzuk eskaini nahi dituzte. Kasu partikular guztiak ezin har ditzaketela esan beharrik ez dago. Gainera, ez dute agindu zorrotzak izan nahi, arau gidari batzuk baizik. Erabakietan adibide gisa hitz batzuk aipatzen dira, noski; baina horrek ez du esan nahi, beste gabe, hitz horiek erabiltzea zilegitzat jotzen duela Euskaltzaindiak. Adibide balioa dute xoilki aipamen horiek.*

*Euskal hitzen ondarea aberasteko lana, guztion lana da; hiztun, idazle, irakasle eta, hitz batean, denon artean burutu behar den lana. Euskaltzaindiak ez du uste zein hitz mailegatu behar den banazka erabakitzea berari dagokionik. Eta ez da ahantzi behar, bestalde, maileguez landara, badela beste biderik: elkarke-taz eta eratorpenez sortzen direnena.*

*Baita ere esan behar da Arau hauetan ebakera edo ahoskerari buruz ez dela deus erabakitzen, zuzenean behintzat. Hitzen itxura eta idazkera xoil-xoilik hartzen da kontutan.*

9. *Esanak laburbilduz, hau garbi eta argi geldi bedi:*

*Hitz mailegatuak euskaraz darabiltzagunean nola idatz: hori da lan honen helburu bakarra. Ez inola ere, ordea, esate baterako, hitz mailegatuetatik zeintzu diren jadanik euskal hitz bilakatu direnak esatea, are gutxiago horrelakorik erabakitzea. Lan honetan exenplu gisa aipatzen diren hitzak euskal hitzak direnik ez*

*diogu, beraz. Ez ditugu horiek hobesten, alegia, inork horien ordez erabil ditzakeen euskal errotikakoak baino. Lan honetan ez gara, izan ere, lexiko lanetan ari.*

*Lan honetan hauxe bakarrik irakatsi nahi da, berriro esan: inork euskaraz idaztean lan honetan exenplu gisa aipatzen diren hitzak edo horien antzeko mailegatuak erabili nahi baditu, horiek euskaraz nola idatz. Gaurdaino ez baita izan gure artean horrelakoetan batasunik eta nork bere gogara idazten baitzuten. Aniztasun hori moztu nahi dugu eta idazleei horrelako hitzak erabili nahi badituzte modu berean idazteko bidea eskaini.*

*Lan honek eta 1959an Euskaltzaindiak euskal hitzak zein ziren argituz eman zuen erabakiak ez dute, beraz, helburu bera, oso desberdina baizik. Erabaki hark euskal hitzak zein ziren finkatzea baitzuen helburu, eta honek ez. Honek, hitz mailegatu berri eta ikasietatik zein diren jadanik zinez euskal hitz bilakatu direnak eta zein ez alde batera utzirik, haiek euskaraz idazleak bere gogara erabiltzekoan —nork bere aukera egiten baitu— modu berean idatzirik ikusi nahi lituzke gaurdanik Euskaltzaindiak, direnak direla. Aldiz 1959ko erabakiak han aipatu haiek euskal hitzak zirela adierazi zuen, ez ordea erabaki haien artean grafia aldetik dudazko izan zitezkeenak nola idatzi behar ziren.*

*Eta hauxe da, hain zuzen, lan berri honen bidez Euskaltzaindiak bete nahi duen hutsartea.*

\* \* \*

*10. Ondoren, Mailegu berriei buruz Euskaltzaindiak onartutako Arauak ematen dira, hots, Uztaritzeko Adierazpena, eta, han agindutakoa betez, hurrengo bi urteetan erabaki diren Zortzi Puntuak. Bibliografi eraskin bat ere jartzen da, hau da,*



*Euskera aldizkarian gai honi buruz agertu diren edo agertzeko diren txosten batzuenaz. Azkenik, Agiriaren laburpena ematen da gaztelaniaz eta frantsesez.*

*Euskaltzaindiak badu asmoa, maileguen bidez egin duen bezala, hitzen eskasia erremediatzeko ditugun beste bideei buruz ere arauak prestatzeko. Heldu diren urteetan ekingo dio lan honi.*

Donostian, Azaroak 29, 1985.



---

**B**

---

UZTARITZEKO  
ADIERAZPENA



Euskaltzaindiak maileguzko hitzei buruz bigarren Jardunaldiak egin ditu Uztaritzen. Helburua ez da hitz zerrenda —lexikoa, alegia— onartzea, maileguzko hitz horiek zein grafia-tan hartu behar genituzkeen eztabaidatzea baizik. Euskarak, nahi eta ez, kanpotikakoak hartu behar ditu eta ari da hartzen, baina hartu, neurritz hartu behar, hizkuntzak bere muina galduko ez badu.

1959-an Euskaltzaindiak euskal hitzak zein diren mugatzeko eman erabakian, maileguzko hitz zaharrei buruz lehen-lehen urratsa eman zuen. Euskararen lege fonetiko historikoak gorde behar dira, baina maileguzko hitzek erdaretan duten itxurari leialtasuna zor zaio, begiz ere sartzten bait dira hitzak. Hor-tik sortzen zaio Euskaltzaindiari bat-batean eta erabat konpon-tzeko zaila ikusten duen auzi korapilatsua, eta premia.

Bi lege horiei ahalik eta zehatzen erantzutea da Euskaltzaindiaren eginbidea. Zenbait aldiz, hitz mailegatuek inguru hizkuntzetan duten itxura aldatu behar dute gureganatzean, eta euskararen zenbait lege zaharrek amore eman beharko dute, beste askotan.

Bi Jardunaldi horietara ekarri diren txosten baliotsuak oinarri harturik, aski landuak eta umotuak dauden puntuekiko erabakiak, ahalik eta lasterren, banan-banan agertuko ditu Euskaltzaindiak.

Uztaritzen, 1983.eko Urriaren 29-an.



Luis Villarante

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

*[Handwritten signature]*

---

**D**

---

**MAILEGU BERRIEI  
BURUZ  
EUSKALTZAINDIAK  
EMATEN DITUEN  
ARAUAK**





I.

HITZ  
-HASIERAK



1. Erdaraz hasieran *s* + kontsonante edo *r* duten hitzei euskarak bereganatu dituenean protesi bokala jarri die orain arte. Adibidez: *a-*: *arratoi, arropa, arrosa*; *e-*: *erramu, errege, erregela, erremedio, Erroma, Errusia, estatu, ezpata*; *e- /i-*: *espiritu/izpiritu*. Eta joera horrek oraino duen indarra ikusiz, gisa bereko hitzak mailegatzean, aurrean *e* bat erastea gomendatzen da: *erromantiko, erradiografia, erlatibitate, espeleologia, eski*.

Baina ez dute zertan *a/e/i*-rik hartu aurretik, elkarketa dela eta, jadanik beste bokalen bat daramatenean: *Erreforma/Kontrarreforma*.

Salbuespentzat uzten dira azken orduko mailegu irentsi gabeak: hala nola, siglak: RENFE. Izen propioak: *Rembrandt, Roquefort, Sri Lanka, Stalin*. Eta berrikitan hartuak bereziki: *radar, rally, ranking, record, robot, rock-and-roll, royalty, standard, stop*.

2. Aintzina euskarak *p-*, *t-*, *k-* fonemak hasieran zituzten erdal hitzak —*pace, tempora, castelli*— mailegatzean, *b*, *d*, *g-* bilakarazten zituen eskuarki —*bake, denbora, gaztelu*—; bai-

na joera hori aspaldian galdua delarik, Euskaltzaindiaren aburuz gisa bereko hitz berriak mailegatzean, ez litzateke aldaketarik egin behar. Esate baterako: *politika, penizilina, telegrama, topografia, kontrola, kimika*.

Era berean, hitz oinarria aintzina mailegatua delako aldatua izan arren, haiengandiko erdal eratorri berriek ez dute euskaraz aldaketa beharrik. Adibide gisa: *gorputz* baina *korporazio*, *denbora* baina *tenperatura*, *lore* baina *flora* (*faunaren osagarria*).

II.

HITZ  
-BUKAERAK



Iturri zaharra latina delarik mailegu berriak hartzen direnean, orainarteko hitzek izan duten ohizko bideari jarrai dakioke hitzaren bukaerari dagozkionetan. Euskal literaturaren tradiziozko usarioa bikoitza denean, ahozko mintzairan ere beste horrenbeste gertatu izanik, ahal dela joera hedatuenari eutsiko zaio, literatura zaharrean izan duen pisua ere gogoan hartzen dela. Erraz ezin erabaki baledi, oraingoz biak har litezke. Jakina, bestelako fenomeno fonetikorik ez dago zertan kontuan hartu; hala nola, bokal artean —l— > —r— bihurtzea, —n-ren ondoko kontsonante oklusiboa ozen egitea, eta abar, bide zahar eten gabekotik baletoz gertatuko litzatekeen erara.

Honetara:

1. *Zirkulu*, eta ez *zirkulo*, *kalkulu*, eta ez *kalkulo*, *pendulu*, eta ez *pendulo*, *artikulu*, *kapitulu*, *titulu*, *mirakulu*, eta abar, euskaraz lehendik erabili izan direnetan bezala.

*Aparatu*, eta ez *aparato*, *dekretu*, eta ez *dekreto*, *kreditu*, eta ez *kredito*, *institutu*, eta ez *instituto*, *estatutu*, eta ez *estatu-to*, lehenagotik erabili izan diren *mandatu*, *sek(e)retu*, *infinitu*, *meritu*, eta abar, bezala.

*Dokumentu*, eta ez *dokumento*, *monumentu*, eta ez *monumento*, *testamentu* (Leiç.), eta ez *testamento*, erabili izan diren *monument* eta *testament* ez hautatzekotan. Gainerakoan mailegu zaharretan *-mendu* bukaeradunak erabili izan dira Iparralde eta abarreko joeran, eta *-mentu* besteetakotan.

*Solidu*, eta ez *solido*, *likidu*, eta ez *likido*, lehenagotik erabili izan diren *partidu*, *soldadu* (*soldado* ere bai Zuberoan), eta *gradu* bezala.

*Plano*, *meridiano*, *dekano*, -o bukaera dutela eta -n- bokal artekoa gorderik, halakoetarik sortu ziren mailegu zaharrak *-au* bukaeradunak badira ere, —ikus *lau*, *kristau*, *garau*—, gerroago *-anu* ere agertu izanik zenbait lekutan.

*Infusorio*, *primario*, baina *bibliotekari*, ohitura zaharri eutsirik *-ari* berrekailua denean.

*Integrazio*, *administrazio*, *manifestazio*, mailegu arruntetan agertzen den *-zio* berrekailua gorderik, *-zino*, *-zione*, eta abar, itxuraz ere ezagutzen dena.

*Datibo*, *ablatibo*, -o dutela.

*Moderno*, *alterno*, -o dutela, zaharretan *gobernu*, *ifernu* / *infernu*, izanik ere, *Aita eternoa* erabili izan baita. Hala ere badira *kuadernu* gisara *modernu* normalki egingo luketen eskualdeak.

*Minimo*, Axularren *leitimo* bezala.

*Uniber(t)so*, zaharrago den *bert(t)so* bezala.



*Neutro, espektro, arrunta den laratro bezala, eta bada ministro* ere (P. Ab., 80).

*Plural, neutral, natural, bokal, horizontal, alderdi bazuetan zenbait mailegu arruntek azkenengo -e ta guzti korritu izan badute* ere: *ospitale, materiale, katedrale*.

*Eskultore, azkenengo -e gorderik, forma arrunten arteko kasu bakanen bazuetan motorra bezalakoak erabiltzen badira* ere.

*Singular, artikuluairekin singularra eginik, militar berdin.* Hala ere J. d'Etcheb.: *singulare*.

*Uniber(t)sitate, bukaerako -tate* hobetsirik.

2. Euskaraz badira, alabaina, atzerriko hizkuntzen eraginez arrunt bilakatu direnak, hala nola, *mitin, tenis, eta abar, lehenago tabako* eta halako hitzekin gertatu zen erara.

3. Iturri zaharra grekoa denean, formaren aldetik latinean zutena oinarritzat hartzen bada ere, amaierako *-o* gorde daiteke, mailegua bide arruntetik ez datorrenean:

*Dialekto, arkitekto, astro, filologo, filantropo, antidoto, anfotero, petalo, paralelo, tipo, zilindro, kristianismo, —iudaismo bezala, (Leiç.)—, zentro —baina kasu honetan Axularrek zentru darabil—.* Autoreetan badira hurrengokoak bezalakoak, (Leiç.): *heretiko, pedagogo, proselito, diptongo, misterio, trono, (Axular): paralitiko, martirio, tirano, (Belapeire): sinbolo, (Mogel, P. Ab.): anatomiko, mikrokosmo, pronostiko.*

Grekozko *analysis* bezalako hitzak nominatiboko azken *-s* gabe har daitezke: *analisi, katekesi, psikosi, neurosi, metro-*

*poli*; baina hala ere -s gorderik -itis bukaera dutenak: *flebitis, otitis, meningitis*, edo silaba bateko edo biko hitzak direnean: *iris, atlas, kosmos*.

4. -a organikoaz. Mailegu berrien -a organikoari eustea gomendatzen du Euskaltzaindiak: *Biologia, filosofia, kultura, historia...* Honek, ordea, ez du esan nahi hitz elkartu eta eratorriak sortzerakoan -ia bukaera duten hitzetan azken -a hori ezin kenduzkoa denik: *Biologi ikerlanak, Filosofi Fakultatea*.

Nolanahi dela, hitz elkartu eta eratorriei dagokienez maileguzko zein euskarazko hitz jatorren -a organikoa konposizioan nola erabil litekeen erakusteko arau zehatzagoak emango ditu bere egunean Euskaltzaindiak.

## Laburpen gisa

Latinez -ulus, -i	bukaera,	euskaraz	u
Latinez -atus, -us	»	»	u
Latinez -cretum, -i	»	»	u
Latinez -itum, -i	»	»	u
Latinez -utum, -i	»	»	u
Latinez -entum, -i	»	»	u
Latinez -idus, -a, -um	»	»	u
Latinez -anum (-anus), -i	»	»	o
Latinez -arius, -a, -um	»	»	ari
Latinez -tio, -onis	»	»	zio
Latinez -ivus, -i	»	»	o
Latinez -ernus, -a, -um	»	»	o
Latinez -imum (-imus), -i	»	»	o
Latinez -versum, -i	»	»	o
Latinez -ter, -tra, -trum	»	»	o
Latinez -alis	»	»	al
Latinez -tor, -oris	»	»	ore
Latinez -aris, -e	»	»	ar
Latinez -itas, -atis	»	»	tate

Grekoak » o  
 (S bukaera dutenek, letra hori galtzen dute, salbu  
*-itis* bukaeradunak eta silaba bateko eta bikoak  
 direnak)

A organikoa gorde, salbu hitz elkartu eta eratorrietan.



III.



G- EDO [J] -LATINEZ  
BEDEREN- BERE  
BAITAN DUTENAK



1. Mailegu zaharretako *j* eta *i* ikutu gabe, orain mailegutzen diren hitzetan *g* grafia hobetsiko da: *biologia* (biologoa), *geografia* (geografoa), *filologia* (filologoa), *dramaturgia* (dramaturgoa). Jakina da *g* grafema /g/ bezala irakurri ohi dela euskaraz edozein bokalen aurrean.

Bestalde erdaretan *i / j / y* agertzen denean, bide honi jarraituko zaio:

a. Bokal artean beti *i* idatziko da: *proiektu*.

b. Gainerako kasuetan silaba hasieran baldin badago, beti *j*, *jaiegun* eta *jaia* hitzetan bezala: *janbo*.





IV.

X BERE  
BAITAN DUTENAK



1. Hasieran eta bukaeran  $x$  duten maileguak aldatu gabe idatziko dira: hala nola, *xenofobia* eta *fenix*.
2. Bokal artean ere  $x$  idatziko da: *taxi*, *sexu*, *oxigeno*.
3. Kontsonante aurrean ez da  $x$  idatziko,  $s$  baizik, honetan tradizioari (*estrainio*, *esplikatu*, *testu*, *eskumiku*, *espresuki*) jarraituz.
4. Baina kontsonante ondoan  $x$ : *Marx*, *marxismo*, *Xerxes*.



V.

TXISTUKARIA

+ *L*, *N*, *R*;

BI SUDURKARI

ELKARREN ONDOAN



I. Hitz mailegatueta  $z$  edo  $s$  kontsonanteak (latinezko  $z$  greokotikako hitzetan agertzen da),  $l$ ,  $n$  edo  $r$  kontsonanteen ondoren gertatzen direnean hemendik aurrera nola jokatu behar litzatekeen erabakitzeke Euskaltzaindiak zalantzak izan ditu. Historiari begiratzen baldin badiogu, euskalkien jokabidea nabarra eta bitarikoa da, izan ere. Hor dugu, esate baterako, XVI. mendean Leizarragaren joera. Honek  $n$ -ren ondoren beti frikaria idazten zuen;  $l$ - eta  $r$ -ren ondoren ere bai, aditz izenen *-tze* atzizkia ez zen guztietan. Geroago, ordea, hor ditugu aski hedatuak eta egun oro erabiliak, *pentsatu*, *bertso*, *zentzu*, *saltsa*; eta ia geure egunotan erabat ezagunak diren *Unibertsitate*, *kontsonante*. Ezin uka daiteke, hala ere, hain erabiliak ez ditugun beste kultura-hitz batzuetan, hala nola, «*catarsis*», «*enzima*» (medikuntza-hitza), inork euskaraz erabili nahi dituenen nahi ta ez afrikariak baliatu beharra gogorxko gertatzen dela. Ez, ordea, jatorriz *ce*, *ci*,... dutenetan; hala nola *inertzia*, *existentzia*, *esentzia* (filosofiako hitzak azken biak). Guzti hau gogoan izanik, honako bidea onartzen du Euskaltzaindiak:

1.  $L$ -ren ondoko txistukaria afrikariaren grafiaz idaztea; hala nola *koltza*.

2. *N*-ren ondoko txistukaria afrikariaren grafiaz idaztea orainarteko ohituran era horretara hedatu diren hitzetan; hala nola, *kontsonante*. Halaber *existentzia*, *esentzia*, lehen emandako arrazoiagatik. Baina hain arruntak ez direnetan jatorrizko multzoa bere hartan uztea; hala nola *enzima*.

3. *R*-ren ondoko txistukaria afrikariaren grafiaz idaztea orainarteko ohituran era horretara hedatu diren hitzetan, hala nola *Unibertsitate*. Halaber *inertzia*, lehen emandako arrazoiagatik. Baina hain arruntak ez direnetan jatorrizko multzoa bere hartan uztea; hala nola *katarsi*.

II. Bi sudurkari elkarren ondoan gertatzen direnean, bi kontsonante horiek diferenteak direlarik biak atxikiko dira; hala nola, *amnistia*, *himno*.





VI.

KONTSONANTE  
OKLUSIBO EDOTA  
BATEN ONDOREN  
SUDURKARIA EDO  
[ʃ]-LATINEZ  
BEDEREN-  
DUTENAK



1. Kultur hitz mailegatueta *-k-* edo *-p-* baten ondoan *-t-* datorrenean, *-kt-* edo *-pt-* idatzi behar da; hala nola, *arkitekto*, *dialektika*, *kontzeptu*. Ahozko tradizio zaharrekoak direnean, ordea, aurreko kontsonante gabe eman daitezke; hala nola, *fruitu*/*fruitu*, *erretore*.

*-d-* baten ondoan *-b-* datorrenean, *-db-* utziko da latinez *-dv-* zena; hala nola, *adberbio*.

2. *-k-* baten ondoan *-n-* datorrenean, *-kn-*; hala nola, *teknika*, *teknologia*.

*-g-* edo *-d-* baten ondoan *-m-* datorrenean, *-gm-* edo *-dm-*; hala nola, *sintagma*, *administrazio*.

3. *-d-* edo *-b-* baten ondoan [j] datorrenean —latinez bederen—, *-dj-* edo *-bj-* emango da; hala nola, *adjudikatu*.

Lehenengo puntuan adierazi den moduan ahozko tradiziokoak direnean bide zaharrari eutsiko zaio; hala nola, *aiutu*.



VII.



HIRU  
KONTSONANTEZKO  
MULTZOAK



Hitz mailegatuek jatorriz hiru kontsonantezko multzoa dutenean bere baitan, euskarak ere hiru kontsonanteak gordeko ditu; hala nola, *institutu*, *konstituzio*.

Ez, ordea, euskara idatzian aspaldidanik erabili diren **hit**zek hizkera arrunteko esanahia dutenean; esate baterako, *istant(e)*, *sustantzia*.





VIII.

---

**BI TXISTUKARI  
ELKARREN  
ONDOAN ETA  
TXISTUKARIA  
+ OKLUSIBOA**



1. Latinak jatorriz bokal artean bi *-ss-* izan arren, euskaraz bat idaztea hobestean da; hala nola, *asimilazio*, *disimilazio*.

2. Latinez *-sc-* (grekoz *-sk-*) multzoa *-i* edo *-e* bokalen aurrean gertatzen denean, euskaraz *-sz-* idaztea onartzen da, eta hitzaren hasiera baldin bada, *e-* protetikoa hartuko du; hala nola, *aszetika*, *eszeptiko*.

Baina euskaraz tradizio zaharretik datozkigunek *-z-* eraman dezakete; hala nola, *dizipulu*, *diziplina*, eta berriagoetan *zientzia*, *ziatika*.

3. Latinez *-sch-* (grekoz *-skh-*) multzoa *-i* edo *-e* bokalen aurrean gerta badadi, euskaraz *-sk-*; hala nola, *eskema*, *eski-zofrenia*. Halaz ere hitz zaharretan ohiturari jarraituko zaio; hala nola, *zisma/xisma* eta honetarik datorren *zismatiko/xismatiko*.



---

**E**

---

## BIBLIOGRAFI-ERASKINA



Gaiari buruz *Euskera* Euskaltzaindiaren agerkarian agertu diren edo agertzeko diren txostenak:

- MITXELENA (KOLDO): «Hitz mailebatuez», *Euskera* (1983), 103-105.
- VILLASANTE (LUIS): «Mailebuzko hitzei buruzko Jardunaldietako kronikatxoa», *Euskera* (1983), 527-528.
- VILLASANTE (L.): «Maileguzko hitzei buruzko II. Jardunaldien kronikatxoa», *Euskera* (1984), 393-394.
- VILLASANTE (L.): «Uztaritzeko Adierazpenean agintzen dena betetzeaz», *Euskera* (1984), 263-267.
- IRIGOIEN (ALFONTSO): «Euskal hitzen akabuko «o» eta «u» autoretan», *Euskera* (1984), 515-535.
- IRIGOIEN (ALFONTSO): «Bizkaian O + A elkarketa OA egiten den eremuko hitz mailegatu arruntak azken O eta U bokalei dagozkiela, azentua ere gogoan harturik», *Euskera* (1984), 537-594.
- IRIGOIEN (ALFONTSO): «J grafiaren problematikaz egungo eguneko egoera», *Euskera* (1984), 595-598.

Agertzeko daudenak:

- Mitxelenaren txostena «Mailegu berrien idazkera», 1984ko Urriko Batzarrean aurkeztua.
- Villasanteren txostena «Maileguzko hitzen arazoari segida emateaz», 1984ko Abenduaren 21eko Batzarrean irakurria.
- Euskera* agerkarian agertutakoez kanpo, honako liburu hau ere aipagarria da: *Maileguzko Hitzak. Ebakera eta idazkera*. U.Z.E.I., 1982.





---

**F**

---

**LABURPENAK** (GAZTELANIAZ ETA  
FRANTSESEZ)



## a.—Resumen

La presente Declaración de la Academia de la Lengua Vasca tiene por fin lograr la necesaria uniformidad de las voces de préstamo nuevas o recientes en lo que concierne a la grafía y forma de dichas voces. No pretende en modo alguno decidir qué voces o préstamos nuevos hayan de incorporarse a la lengua; ni tan siquiera las voces que aquí se aducen a título de ejemplos se han de considerar por este solo hecho como aceptadas por la Academia. La finalidad de la Declaración es, pues, únicamente ofrecer unas pautas o directrices para fijar la forma y grafía de las voces de préstamo que se adopten.

Es claro que estas normas no afectan a los préstamos viejos ya aceptados e incorporados desde antiguo a la lengua y que en ella han adquirido carta de naturaleza. Tales préstamos tienen su forma y grafía consolidada, que en nada se altera con estas normas; aunque puede ocurrir que en casos concretos haya duda sobre si una determinada voz pertenece a la categoría de préstamo viejo o no.

Por último, tal vez no resulte superfluo advertir que una Declaración de esta índole, por su mismo carácter genérico, no puede abarcar todos los casos particulares ni cerrar la puerta a posibles excepciones.

He aquí en brevísimos resúmenes las ocho resoluciones aprobadas por la Academia:

1.<sup>a</sup> *sobre el comienzo de algunas de estas voces.*—Las voces que en la lengua original —aquí se toma como tal el latín— comienzan por «r» o «s» + consonante se vasquizarán con la prótesis acostumbrada (a-, e-, i-).

2.<sup>a</sup> *sobre la terminación de las voces.*—Teniendo en cuenta la terminación de las voces —en latín— «us», «um», «tio», «ter», «alis», «tor», «aris», «itas» y la tradición vasca para la adaptación de dichas voces, se indican las directrices a seguir en los diversos casos para la adopción de los nuevos préstamos (supresión de la «s» final, conclusión de las voces, según los casos, en «u», «o», «ari», «zio», «ore», «al», «tate», «ar»). En voces específicas griegas se escoge la terminación «o» y se decide la supresión de la «s» final (excepto en las voces terminadas en «itis») y en monosílabos y bisílabos .

3.<sup>a</sup> *sobre la transcripción de las voces en que figuran «g», «j», «i», «y».*—Para los préstamos nuevos se preferirá la grafía con «g» (cuando en latín figura esta letra, se entiende). Tratándose de voces en que figuran «i», «j» o «y», entre vocales se escribirá siempre «i»; en los demás casos, en principio de palabra, siempre «j» (nunca «i» o «y»).

4.<sup>a</sup> *Sobre las voces que en latín llevan «x».*—La norma adoptada es la siguiente: en principio y fin de palabra se escribirá «x»; entre vocales también «x», e igualmente tras consonante; delante de consonante, en cambio, no se escribirá «x», sino «s».

5.<sup>a</sup> *Esta resolución versa sobre los préstamos nuevos en que figuran las sibilantes «z» o «s» tras «l», «n» y «r».*—Teniendo en cuenta que las fricativas que se hallan en esta posición suelen convertirse generalmente en africadas y transcribirse, en consecuencia, «tz» y «ts», la Academia, por lo que se refiere a los préstamos nuevos y culturales, ha adoptado una posición un tanto matizada, que respeta, por un lado, esta ley fonética y gráfica, pero, por otro, reconoce también ciertos límites o excepciones a la misma. —Cuando se trate de la concurrencia de las dos nasales «m» y «n», en los préstamos vascos recientes se respetarán ambas.

6.<sup>a</sup> *En los préstamos nuevos en que concurren los grupos de consonantes «kt», «pt», «db», «kn», «gm», «dj» y «bj», se conservarán ambas consonantes.*

7.<sup>a</sup> *En los grupos triconsonánticos, el euskara respetará asimismo dichas tres consonantes.*

8.<sup>a</sup> *En los grupos formados por dos sibilantes, se observará la siguiente norma: 1.<sup>a</sup> cuando se trate de dos «ss» entre vocales, el préstamo vasco no llevará más que una; 2.<sup>a</sup> el grupo «sc» ante «e» o «i», e en vasco se escribirá «sz» y, si va en principio de palabra, se le hará preceder de la «e» protética; 3.<sup>a</sup> las palabras que en latín ostentan el grupo «sch» seguido de «i» o «e», en vasco llevarán «sk» por lo que se refiere a la transcripción gráfica de dicho grupo.*

Próximamente, y como continuación de estos Acuerdos sobre los préstamos nuevos, la Academia se propone estudiar también las otras vías con que cuenta el euskara para enriquecer su léxico, a saber, la composición y la derivación, y espera poder ofrecer algunas pautas que sirvan para fomentar el recurso a estas otras vías de un modo coherente y eficaz.



## b.—Résumé

La présente déclaration de l'Académie de la Langue Basque a pour but d'établir la nécessaire unité des mots d'emprunt nouveaux du point de vue de la graphie et de la forme. Elle ne prétend pas décider quels sont les mots et les emprunts qu'il s'agit d'admettre; elle ne déclare pas non plus que les mots qui sont pris à titre d'exemple doivent être considérés comme étant acceptés par l'Académie. Le but de cette déclaration est donc, uniquement, de donner quelques indications destinées à fixer la forme et la graphie des emprunts qui seraient adoptés.

Il est certain que ces normes n'affectent pas les emprunts anciens déjà acceptés et intégrés depuis longtemps dans la langue et qui ont déjà leurs lettres de naturalisation. Ces emprunts ont acquis déjà leur forme et leur graphie consacrée qui ne contredit pas les dites normes encore qu'il se peut que, dans des cas très concrets, subsiste le doute au sujet de l'ancienneté de l'emprunt.

En dernier lieu, peut-être n'est-il pas superflu de dire qu'une déclaration de ce genre, par son caractère particulier, ne peut embrasser tous les cas concrets, ni fermer la porte à d'éventuelles exceptions.

Voici, en un résumé succinct, les huit propositions approuvées par l'Académie :

1) *Initiale de certains mots.* - Les mots qui, dans la langue originelle — il s'agit en l'occurrence du latin — commencent par *r* ou *s* + consonne prendront en basque la prothèse habituelle : *a, e, i*.

2) *Terminaison de certains mots.* - En prenant en compte les terminaisons de ces mots en latin *us, um, tio, ter, alis, tor, aris, itas* et la tradition basque de l'intégration de ces mots, sont proposées les directives à suivre dans les divers cas pour l'adoption de nouveaux emprunts (suppression de l'*s* final et terminaison des nouveaux emprunts selon les cas en *u, o, ari, zio, ore, al, tate, ar*). Pour les mots empruntés au grec on choisira la terminaison *o* et on supprimera l'*s* terminal (sauf pour les terminaisons en *itis*) et les mots monosyllabes ou de deux syllabes.

3) *Transcription des mots où figurent g, j, i, y.* - Pour les emprunts nouveaux on préférera la graphie avec *g* (quand elle apparaît en latin bien entendu). Quand apparaît *i, j* ou *y*, entre deux voyelles on écrira *i*; dans les autres cas, à l'initiale des mots, on écrira toujours *j* (jamais *i* ou *y*).

4) *Mots qui en latin possèdent un x.* - On adopte la règle suivante : au début et en fin de mot on écrira *x*; entre deux voyelles et à la suite d'une consonne on écrira également *x*; devant une consonne, en revanche, on écrira *s* et non *x*.



5) *La norme suivante concerne les emprunts récents où figurent les sifflantes z ou s précédées de l, n ou r.* - En tenant compte que les fricatives qui sont en cette position se transforment généralement en africquées et s'écrivent par conséquent *tz* et *ts*, l'Académie, en ce qui concerne les emprunts nouveaux, mots savants surtout, a adopté une position nuancée qui, d'une part, tient compte de cette norme phonétique et graphique, mais d'autre part admet quelques limitations ou quelques exceptions. Quand les deux nasales *m* et *n* se suivent on conserve les deux lettres dans le cas des emprunts récents.

6) *Dans les emprunts récents où interviennent les groupes kt, pt, db, kn, gm, dm, dj et bj, on conservera les deux consonnes.*

7) *Dans les groupes triconsonantiques le basque conservera les trois consonnes.*

8) *Dans les groupes formés de deux sifflantes on appliquera la norme suivante :*

1) Quand on a deux *ss* en position intervocalique l'emprunt basque n'en conservera qu'une.

2) Le groupe *sc* devant *e* où *i* s'écrira en basque *sz* mais s'il se trouve en début de mot on le fera précéder d'un *e* prothétique.

3) Les mots qui comportent en latin le groupe *sch* suivi de *i* où de *e* doivent se transcrire en basque sous la forme *sk*.

Pour donner une suite à ces décisions l'Académie se propose d'étudier prochainement les autres voies que le basque utilise pour enrichir son lexique, à savoir la composition et la dérivation. Elle espère pouvoir proposer d'autres démarches susceptibles d'ouvrir des voies nouvelles, efficaces et cohérentes.





